



Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria
2019ko maiatza · 352 alea

TOKIKOM



EUSKAL JAIK
DANTZARAKO
PREST?



PIL-PILEAN 352

2019ko maiatza

Azaleko argazkiaren egilea:

Fernan Oregi

Aurkibidea

- 4 **Bote prontuan**
Elena Urrestarazu
 - 6 **Zer berri** Aktualitateko albisteak
 - 12 **Argazki bidez** Urban Trail
 - 14 **Plazan bazar** Umeendako jolasak
 - 18 **Erreportajea** Euskal Jaiak
 - 22 **Kirola** Aizkolari lehia eta Onintza Ibartzabal
 - 24 **Kultura** Ezoziko jaiak eta bertso saio beganoa
 - 26 **Nondik nora** Isis Batista
 - 27 **Gure artistak** Cristina Albisua
 - 28 **Sakonean** Joxean Leibar
 - 30 **Zerbitzuak** Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak...
- IRITZIA
 - 3 **Neuretik** Martin Luke
Poltsikoan daramagun kameleoia
 - 16 **Gutunak** Danborradako batzordea
Herriko danborradari, gero arte
Herritar talde bat Zuhaitz mozketak dela-eta
 - 16 **Hausnarketa** Alkateari eskaerak
 - 17 **Zir(r)ika** P.G. *Magnoliak*
 - 17 **Puntua** Xabier Iñurrieta
"Modernitatearen" ajeak



Pil-pilean herri komunikabidea

TOKIKOM

Argitaratzailea

Pil-pilean Euskaltzaleen
Topagunea
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze

Erredakzioa

Ubane Madera
ubane@pilpilean.eus
Egoitz Unamuno
egoitz@pilpilean.eus
605 706 086

Publizitatea

publizitatea@pilpilean.eus
Zuzentzailea
Leire Ginea

Diseinua

Goiena
Oier Larreategi (moldaketak)
Maketazioa
Oier Larreategi

Inprimategia:

Gertu Koop.
Banaketa:
Pil-pilean Ekoizpena
Lege Gordailua:
SS-537-2000
Tirada: 2.100 ale



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



SORALUZEKO
UDALA

Poltsikoan daramagun kameleonia



MARTIN LUKE

Begibistakoa da azkenengo urteotan Internet eta ordenagailuek gure etxeetara gerturatu dituzten onurak ugariak direla. Etxetik mugitu gabe aldizkariak irakurri, erosketak egin, jendearekin komunikatu edo bankuko kontua erreparasatu dezakegu beste hainbat aktibitatearen artean.

Eta ez hori bakarrik, gure sakelakoari esker gai gara gauza guzti horiek lanean, oporretan, ikastetxean edo beste estatu batean kontsultatzeko ere. Hainbeste dira aukerak eta hain ezberdinak ia ahaztu egin dugula mugikorraren oinarrizko funtzioa deitzea zela, nahiz eta gaur egun oraindik ere “telefono” izena ematen jarraitzen diogun.

Orain dela urte dexente desagertu ziren antena erraldoiak eta botoiak zituzten aparailu zaharkitu haiek. Orain, pantaila zapalak eta kamara bikoitza duten erremintak dauzkagu, geure gustuak ezagutzen dituztenak eta idatzi nahi duguna guk geuk jakin aurretik pantailan jartzen digutenak. Bai, oraindik deitzeko gai dira noski. Baina ez al dira etxeko ordenagailuak ere deitzeko gai?

Nik neuk aspaldi galdu dut ordenagailu edo sakelekoak ezberdintzeko gaitasuna. Poltsikoan, deitzeko gaitasuna duen ordenagailu txiki bat dudala pentsatzen dut momentu oro, erabilgarria bezain arriskutsua dena. Gure argazkiak gordetzen ditu, bideoak, dokumentuak, bankuko datuak, mezu pribatuak... eta horiek guztiak gure aurka modu kaltegarrian erabiliak izan daitezke.

Azken boladan, guztiok entzun dugu nola ugaritu diren Internet bidezko iruzurrak, datu lapurretak, mehatxuak, baimenik gabe hartutako argazkiak... Hori jakinda, ez da harritzekoa informatikarekin erlazioaturiko delituak 2011tik hirukoiztu izana. Gaur egun, estatistikoki, errazagoa da sakelekoan dugun informazioa urrunetik lapurtzea mugikorra bera kalean lapurtzea baino.

Baina oraindik jendeak segurtasun neurri eskasak jartzen dizkio: ez antibirusik, pasahitzik edo Firewallik. Babesik gabe uzten dugu oraindik deitzeko balio duelako. Eta ez dugu ahaztu behar, bizitza errazteaz gain, hondatzeko gaitasuna ere baduela.

**ASPALDI GALDU DUT
ORDENAGAILUA ETA
SAKELEKOA
DESBERDINTZEKO
GAITASUNA**

Elena Urrestarazu

LOAREN ADITUA

TESTUA: EGOITZ UNAMUNO

ARGAZKIA: E. URRESTARAZU

Elena Urrestarazu Bolunburu medikua (Soraluze, 1972) loaren aditua da eta Nafarroako Unibertsitatea Klinikun egiten du lan, loaren unitatean. Gaur egun, Barañain herrian bizi da. **Zein da zehazki zure lana?** Nik loaren gaixoak begiratzen ditut. Begiratzen dugu buruko aktibitatea, muskuluen, arnasa... Zela egiten duten lo, berba egiten duten... Helburua izaten da diagnostiko bat egitea.

Zein dira artatzen dituzun arazorik ohikoenak?

Gehienak izaten dira insomnio edo amnea kasuak, sonanbulismoa eta abar... Arratsaldeztortzen dira, lo egiten dute kableak ipinita eta hurrengo goizean jakiten dugu zer gertatu den.

Zergatik da garrantzitsua loa ikertzea? Loa ezinbestekoa da gorputza errekuperatu dadin. Ez dakigu zergatik den ezinbestekoa baina hala da. Badakigu, arratoiek hamalau egunetan lorik egiten ez badute, hil egiten direla. Pertsonekin dakiguna da lorik ez egiteak arazo asko sortzen dituela: egoera animikoan, memorian, infekzioetarako arriskua handiagoa da...

Oro har, gure kulturaren zer garrantzi du loak?

Gero eta garrantzi gutxiago ematen diogu. Batzuetan beste, duela berrogeitamar urte baino ordu bete gutxiago egiten dugu lo.

Adinak zenbateko eragina du? Uste dugu normala dela zahartu ahala lo hartzeko arazo gehiago izatea. Ez da egia. 70ekin ez da 18rekin bezala lo egiten, baina garrantzitsuenak da hurrengo egunean ondo egotea.

Pertsona bakoitzak du bere neurria? Bai, batez bestekoa 7-8 ordukoa da baina batzuk nahikoa izaten dute sei ordu lo eginda eta beste batzuk zazpirekin ez dute nahikoa. Genetikoa da. Hala ere, kaltegarriagoa da lo gehiegi egitea gutxiegi egitea baino.

Hazi eginda da loarekin arazoak dituen jendearen kopurua? Ez dakigu, lehen ez zelako ikertzen. Baina insomnioa asko hazi da, hirietan argi asko eta zarata handia dagoelako.

Bizi-ohiturek ere eragingo dute... Bai, noski. Heltzen zara etxera berandu, gero afaldu eta gero telebista pixkat bat, familia, mobila, liburu bat... Eta hamabiak edo ordubatak jotzen dute lasai asko. Gurean jende gehiena hamaiketan edo hamabietan joaten da lotara. Beste herrialde batzuetan, adibidez, Frantzia, jendea hamarretarako ohean dago.

Azken aldian asko aipatzen da vamping kontzeptua. Bai, jende asko sartzen da ohera mobila edo tableta hartuta eta horrek loa galarazten du, argiak melatonina gutxitu eta pentsamentua aktibatzen duelako. Ohera sartzen gara orduko 500era eta nahi dugu bapatean 0-ra pasatzea. Aurretik frenatzen joan behar da.

Aipatzen da gehiegi medikatzen garela loaren arazoei aurre egiteko. Hala da? Bai, nagusietan oso zabalduta dago gehiegizko medikazioa. Esaterako, Orfidala. Teorian lotarako pastilak errezetatzen dira lau-bost astetan hartzeko, baina pertsona gehienak ez dira gogoratzen noiz hasi ziren hartzen.

Zein da alternatiba? Terapia kognitibo konduktuala. Doitu behar da ohean egiten den denbora eta bertan lotan ematen duguna. Gehiena aholkatzen duguna da egun osoan zehar *mindfulness*a egitea.

Zure ustez, zer egin beharko genuke ondo lo egiteko? Goizean, eguna argitsu dagoenean, paseatzea oso ona da gero gauean ondo lo egiteko. Pastilak hartzea baino hobea.

Arratsaldean lasaitu egin behar gara eta gauean kontuz ibili gehiegizko argiarekin. Goiz eta arin afaldu, baina goseak gelditu gabe. Esne beroa hartzea ere ona da eta keixak jatea ere bai.

Keixak? Bai, laguntzen dute melatonina sortzen. **Eta siesta egitea?** Ona da hamar-hogei minutu egitea, ez gehiago, bestela denbora gaueko loari kentzen zaio-eta.

Zuk ondo egiten duzu lo? Nik bai. Astegunean gutxiegi eta asteburuetan marmota bat naiz. Baina hori ez da ona eh! Hori da erretzen duen medikuarena moduan.



Nor izango da alkate?

Hauteskundeetan lortutako emaitzekin, oro har, pozik daude alkatezara aurkeztu diren alderdiak; hala ere, gobernatzeko beharrezkoa duten gehiengo osorik ez du inork lortu

EH Bildu da lehen indarra Soraluzen, koalizioak irabazi ditu-eta udal hauteskundeak, "emaitza bikainak" eskuratuta, Unai Larreategi alkategaiaren esanetan.

Jeltaleak ere "pozik" daude, 2015eko emaitzarekin alderatuta, aurreko boto gehiengo lortu dituztelako.

Hirugarren indarra den PSE-EEko Patricia Borinagak ere "positiboki" baloratu ditu emaitzak, nahiz eta berak egin baloraziorik uzkurrena, bototan 2015aren pare geratu direlako ia.

Zela osatuko da gobernuak?

Emaitzak emaitza, eta boto gehiengo eskuratu duten arren, hiru alderdiotako batek berak ere ez du eskuratu bakarrik gobernatzeko beharrezkoa duen gehiengo osoa. Bestela esanda, orain dela lau urteko hauteskundeen ondorengo egoera bera izango dugu oraingoan ere: udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 5 izango ditu EH Bilduk, 4 EAJK eta 2 PSE-EEK.

Eta hor dago galdera. Zela antolatuko dute gobernu datorren legealdiari begira?

Alderdien artean itunen bat egingo dute ala ez?

EH Bilduk dagoeneko iragarri du EAJrekin eta PSE-EErekin berba egingo duela, "udal berria zela antolatuta" aztertzeko. Jeltzaleak eta sozialistak, baina, gehiago daude alderdi barrura begira, goitik etorriko den irizpidearen zain.

Gauzak horrela, badirudi egoera ez dela argituko ekainaren 15era arte.

Orduan, 12:00etan hasiko da alkatea izendatzeko inbestidura saioa. Ohi denez, mahaia osatuko dute lehenengo, zinegotzi gazteenak (Maite Quintanilla) eta nagusienak (Abel Olaizola). Ondoren, zinegotziek eurek, bozketa bidez, aukeratuko dute hurrengo alkatea.

Bozketaren lehen bueltan, gehiengo osoa eskuratu beharko du alkategaiak (11 zinegotzitik 6ren botoak). Gainerakoan, zuzenean izendatuko dute alkate herritarrengandik boto gehien eskuratu dituen alkategaia.

Udalbatza osatuko duten hamaika zinegotziak



Unai Larreategi.



Ana Rosa Maiztegi.




Maite Quintanilla.



Roke Akizu.



Jone Alberdi.



Iker Aldazabal.



Veronica Galarraga.



Ramon Gallastegi.



Abel Olaizola.



Patricia Borinaga.



Ignacio Rubio.

11 zinegotziz osatutako udalbatzan bost zinegotzi berriak izango dira.

LEHEN BUELTAN GEHIENGO OSOA LORTU EZEAN, BOZKA GEHIEN LORTU DUEN ALDERDIAREN HAUTAGAIA IZANGO DA ALKATE

Hauteskundeetako taula konparatiboa

Alderdia	2019		2015		Diferentzia	
EH Bildu	917	%44,41	858	%44,05	59	%6,88
EAJ	704	%34,09	615	%31,57	89	%14,47
PSE-EE	348	%16,85	349	%17,92	-1	%-0,29
PP	63	%3,05	80	%4,11	-17	%-21,25

Unai Larreategi

"Benetan pozik gaude herritarrengandik jasotako babesarekin. 917 bozka jasotzeak argi erakusten du Soraluzen erronkei erantzuteko proposatutako ekintzak zein lan-taldea herritar askoren gustukoak

izan direla. Balorazioetan gehiegi luzatu gabe lanerako ordua dugu ordea orain.

Herritarrek eman diguzuen babes hori alderdien arteko elkarlana eraikitzeke baliatuko dugu. Kanpainan etengabe esan dugu gure herriak ez

duela alderdien arteko lehiarik behar baizik eta gure herriaren aldeko elkarlana. Elkarlan hori eraikitzen hasteko EAJ zein PSE-EEren ordezkariekin bilerak egingo ditugu datozen egunetan.

Denon partetik borondatea baldin badago ziur asmatuko dugula".

Iker Aldazabal

"EH Bildu zoriondu nahi dugu hauteskundeak irabazi dituelako. Esan daiteke bipolarizazioa gertatu dela hauteskundeetan eta ondorioz bi alderdi abertzaleak izan direla boto gehien lortu dituztenak: EH

Bilduk 59 gehiago eta EAJk, aldiz, 89. Esan daiteke Alderdi Sozialistak kopuru bera lortu duela. Beraz, boto kopuruak aztertuta, EH Bilduk 5 zinegotzi, EAJk 4 eta PSE-EEk 2 lortu ditugu. Aurreko legegaldian lortutako kopuru

bera. Ekainaren 15eko inbestidura plenoan, zinegotziek alkatea aukeratu dute. Lehen itzulian, gehiengo absolutua lortzen duen hautagaia izango da alkatea. Inork ez balu lortuko, bozka gehien lortu duen alderdiaren hautagaia izango litzateke alkatea".

Patricia Borinaga

"Sozialistok positiboki baloratzen dugu lehen genituen bi zinegotziak mantendu izana eta 2015arekiko botorik galdu ez izana. Baina behin hori esanda, uste dugu gure helburua ez dela izan behar

mantentzea, haztea baizik; hori lortzeko, batez ere, bi kontu hobetu behar ditugu: Batetik, gure komunikazio-politika, herritarrek identifika gaitzaten bai egiten dugun lanarekin eta baita ere guri

esker errealtate bilakatzen diren ekintza zehatzekin.

Bestetik, hobetu beharra dugu gazteengana gerturatzeko modua, haiek ikus gaitzaten aukera politiko baliagarri gisa, euren arazoei eta beharrei erantzuteko gauza garen aukera politiko gisa".



Herritarrak modelo lanetan iazko desfileko pasarelan.

Bizikale azoka ixteko, desfilea

Ekainaren 14an, barikuan, egingo dute Bizikale azoka, 16:30etik 20:00ak ingurura bitartean, Plaza Zaharrean

Hasi dira herritarrak modelo lanetan jarduteko izena ematen, Bizikalek, herriko merkatari elkarteak, bigarren urtez egingo duen moda desfilean ateratzeko.

Koperatibako, KLB-6 saltokiko eta Fanny Mertzeriako jantziak soinean dituztela egingo dute desfilea Plaza Zaharrean egokituko duten pasarelan, 20:00-20:30ak aldean hasita. Jantziak erakusten laguntzeko, modeloak apaindu egingo dituzte, Bizikaleko ile-apaintzaileek eta Lilurako makillatzaileek.

Ainhoa Ibartzabalek, Bizikale elkarteko ordezkariak zera esplikatu digu: “Kooperatiban lortu dituzte ia modelo guztiak, iazko berberak izango dira; Fanny ere badabil berea antolatzen eta KLB-6 saltokirako ere hasi dira herritarrak lotzen. Denetarikoa jendea ariko da

modelo lanetan: umeak, gazteak eta helduak. Hala ere, modelo gehiago nahiko genituzke, bereziki adinduak”,

Parte hartu nahi duenak ekainaren 3ra arte eman dezake izena, Bizikaleko edozein saltokitan eta tabernatan.

Arratsalde osoan azoka

Ekainaren 14ko moda desfilea izango da, Bizikalaren azoka borobilduko duen ekimena. Bizikaleko saltokiek 16:30ean ipiniko dituzte standak Plaza Zaharrean. Baita txosna ere, herriko harategi eta arrandegiko jakiz egindako pintxoekin, 18:00ak ingururako.

Ibartzabalek gaineratu du otarrainxa brotxeta eta okela brotxeta egingo dituztela, eta chill out gunea ere egokituko dutela, baserriko fardoekin-eta, jarleku-mahaiak osatuta.

Plaentxia Kantuan ekainaren 6an

Ekainaren 6an, eguena, kalez kale irtengo dira Plaentxia Kantuan ekimeneko kideak. 19:00etan Itxaropenatik abiatu eta erdiguneko kaleetan ibiliko dira kantu herrikoia abestuz, euskarazkoak zein gatzelaniazkoak. Iragarri dute uztaileko jaien aurretik ere beste kantu-saio bat egingo dutela. 40 bat kidek osatzen dute Plaentxia Kantuan.

Liztor beltzaren kontrako kanpaina

Diputazioak hasi du liztor beltzaren aurkako aurtengo kanpaina. Bada, halako habiak begiztatzen direnean abisua emateko Udaltzaingora deitu behar da (943 75 30 24) eta bertan erabakiko dute, kasuan kasu, nola jokatu. Erreginak udaberrian hasten dira habia berriak egiten eta orduan harrapa daitezke.

Arrandegi berria ekainetik aurrera

Arraindun izateko ikasi beharrekoak ikasten bukatzen dihardu Azoka Plazan postu berria zabaltzeko baimena eskatu eta eskuratu duen arraindun berriak. Izan ere, laster batean zabaldu beharko du postua, ekainetik aurrera. Izan ere, baldintza hori du ezarrita bertan postu berria zabaldu nahi badu.

"Hamar laguntzaile behar ditugu"

JESUS TAPIA ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA- HISTORIAURREA SAILA

Ekainaren 3an hasita uztailearen hasierara arte indusketak egingo dituzte Dolmenen Ibilbideko lau monumentutan. **Zein da aurtengo helburua?** Agerreburun eta Frantsesbason zentratuko gara, eta Sabuan bukatuko dugu. Irukurutzetan ikerketa bukatuta dago, eta xehetasun batzuk bukatzea baino ez zaigu gelditzen. Agerreburun Aranzadik, Barandiaranek eta Egurenak 1921ean egindako indusketa erreparatu dugu, eta monumentuaren ezaugarri arkitektonikoak dokumentatu eta aztertuko ditugu, berreraikitze- eta- zaharberritze-lanak proposatu ahal izateko. Gainera, posible da material arkeologikoa egotea, bestetan bezala (Gizaburuagan, Kerexetategian, Irukurutzetan). Frantsesbaso eta Sabua indusi gabeko monumentuak dira, eta aztertu egin nahi ditugu jakiteko zein motatakoak diren (dolmenak, tumuluak, zistak), noizkoak, eta zer material kontserbatzen dituzten. **Boluntarioak bertartzeko deia egin duzue; zelakoa da egun bat indusketa batean?**

"LAN HORREN SARIA DA AURKIKUNTZARIK TXIKIENA ERE INFORMAZIO BIHURTZEA"



Jesus Tapia.

Lan-taldea 10 laguntzailez osatzea pentsatu dugu. Laguntzailea izateko ez da ikasketa teknikorik behar, eta indusketan emango dira azalpenak. Lana eskuz egiten da: indusi, lurra bahetu, egitura garbitu... Orduetgia beharren arabera moldatuko da; gutxi gorabehera 08:30etik 16:00ak arte izango da, bazkaltzeko tartea hartuta. Baldintza bakarra hau da: zaletasuna, ondarearekiko errespetua, eta ikasteko gogoia edukitzea. Parte hartzaileei aseguruua egingo zaie eta bazkaria (ogitartekoa) gure kontu izango da. Etortzeko gogoia duenari zera esango nioke: arkeologian ez zara inoiz aspertzen; ez daude bi aztarnategi berdin, eta bakoitzak badu bere interesa, nahiz eta emaitza urriak izan. Lan horren saria ez da bakarrik aspaldiko tresnak aurkitzea, baizik eta aurkikuntzarik txikiena ere informazio bihurtzea.

Herriko artisauen azoka, domekan

Herriko zazpi artisauek Eskulangintza Azoka egingo dute ekainaren 2an, domekan, 11:00etatik 14:30ak arte Zubi Nagusian. Serigrafiaz landutako gauzak, narruzkoak, eskuz jositakoak, bitxiak eta beste salgai izango dira, honako artisauen eskutik: Lorea de Castro, Cristina Albisua, Nuria Muro, Idoia Cacho, Saadia Nasir, Amaia Amor eta Nagore Ruiz.



Artisauak azokan.

Bi peoi behar dira Udalera

Bi hilabetetez Udalaren lan-taldean jarduteko bi peoi kontratatu nahi ditu Udalak. Bi pertsona horien zeregina izango da arduratzea hiri-altzari eta parkeen mantenuaz, hilerriko ehorzketez eta antzeko lanez. Interesa dutenek, ekainaren 14a baino lehen eman behar dute izena udaletxeko bulegoan.

Berenjena Eguna, gazteek antolatuta

Ekainaren 29an Berenjena Eguna egingo dute lehen aldiz, udalerriko gazteek antolatuta. Egun osoko jaia izango da

Ekainaren 29an, zapatuan, eguerditik iluntzera arteko jaia antolatu dute herriko gazteek, Berenjena Eguna izenez bataiatu dutena. Estreinaldia izango du egun horrek herrian, baina iaiztik datorren kontua da.

100 gazte

Hain justu, sare sozialak baliatuta, udalerriko 100 bat gazte mobilizatu ziren ia azaroaren hasieran, "gazteendako egun bat antolatzeko" helburuarekin, "Gaztañerretik herriko jaiak iritsi bitartean, gazteendako zerbait faltan igartzen" zutelako, antolatzaileetako batzuek esplikatu dutenez.

Urte hasieratik

Hori abiapuntu hartuta, urte hasieran ekin zioteb lanari,

egunaren nondik norakoak zehazteko. Harrezkero, herriko hainbat gazte-koadrilatako ordezkariak elkartu dira, eta horren emaitza da Berenjena Eguna, propio gazteei eurei zuzendutako eguna izango dena.

Egunak duen izen bitxiari buruz, berriz, esplikatu dute ez duela aparteko arrazoirik: "Berenjena Eguna izena pertsona batek ipini zion, baina ez du aparteko azalpenik, berari bururatu

GAZTEEK ELKARREKIN BAZKALDUKO DUTE FRONTOIKO ATERPEAN, ETA BAZKALOSTEAN BINGOAN ARIKO DIRA

zitzaion, eta horrelaxe laga dugu".

Bazkaria 8 eurotan

Txupinazoarekin hasiko dute eguna, Zubi Nagusian 12:30ean. Ondoren, 13:00etan, kalez kale ibiliko dira, bertso-poteoan, Jokin Bergara (eibartarra) eta Manu Goigona (irundarra) bertsolariek girotuta.

15:00etan, berriz, mahaiaren bueltan elkartuko dira bazkaltzeko, frontoiko aterpean. Txartelak salgai daude, Edurtza eta Bolia tabernetan, eta gehienez ere 150 lagunendako lekua izango da. Txartelak 8 euroan eskura daitezke, ekainaren 10a bitartean. Bazkariko menua Txurruka jabetxetik ekarriko dute.

Bingoa, elektrotxaranga...

Ondoren, bazkalostea girotzeko, bingoan jardungo dute. 19:00etan atzera ere kalez kale ibiliko dira, Mendaroko Motxailaband elektrotxarangarekin dantzan.

Behin aurtengoa eginda, Berenjena Egunaren antolatzaileen nahia da egun hori egonkortzea.

Mozal Legea eta Zibismoaren Ordenantzak aztergai

Hautsak Harrotzen elkartearen eskutik, ekainaren 4an (martitzena) Haizea Nuñez abokatu eta ekintzaile donostiarrak Mozal Legearen Nondik Norakoak aztertuko ditu kiroldetako erakusketa gelan, 19:00etan hasita.

Ekainaren 11n, berriz, (martitzena) Zibismoaren Ordenantzak mahai gainean

jarriko dituzte Zumaiatik eta Arrasatetik bertaratuko diren hizlariak: Zumaiatik Axier Lopez etorriko da, Kalea Guztiona Da izeneko taldeko kidea, eta Arrasatetik, berriz, Edurne Iraola eta Iraitz Etxaburu etorriko dira.

Antolatzailek jakinarazi dute hitzaldietan boluntarioak egongo direla euskaratik gaztelarrera itzulpena egiteko.



Herriarrak hitzaldia entzuten.



Zuhaixkak eta loreak, Iturburun zaharberritu duten lorategian.

Loratzeko gertu dago lorategi berria

Zaharberrituta dago Iturburu pasealekuko berdegunea: lorategia eta ortuak, biak ala biak egokitu dituzte

Egunotan bukatu dituzte Iturburu pasealekuko berdegunea egokitzeko lanak.

Esparruaren albo banatan lorategia jarri dute, landare txikiz, zuhaixkez eta landare igokariak landatuta.

Erdigunean, berriz, ortua egokitu dute, frutak eta barazkiak sartuta.

Gainera, berdegune guztia egurrezko hesi batekin inguratu dute, berau txakurrengandik babesteko. Izan ere, eta nahiz

eta bertara txakurrak sartzea beti egon izan den debekatuta, txakur jabe askok debeku hori ez dute errespetatu izan, eta gehienetan gorotzez beteta egon da berdegunea.

Lorategiko lanak Bergarako Zuhaitz proiektu naturalak izeneko enpresak egin ditu, 8.450 euroan.

Argitasun beharra

Soraluzeko Udalak esplikaturakoaren arabera, "herritarren eskaerari eta lorategiaren egoera kaskarrari erantzun nahian" zaharberritu dute lorategia. Bestalde, bertan zeuden zuhaitzak errotik moztea erabaki dute "teknikarien aholkuak" jarraituta, "zuhaitzen tamaina handiak" ez zuelako uzten "lorategian nahikoa argi sar zedin eta horrek ezinezkoa" egiten zuelako "landatu diren espezie berrien bideragarritasuna". Gainera, zuhaitzak "ortua handitzeko garaian ere oztopo" ziren.

Dena den, herritar asko, ez datoz bat Udalaren erabaki horrekin, eta protesta publikoak egin dute.

Elkarretaratzea, zuhaitzak "bidegabeki" moztu izana salatzen

Hainbat herritarrek protesta egin zuten Udalak Baltegiatako zuhaitzak herritarren iritzia kontuan izan barik moztu izana salatzen. Sinadurak bilketa ere abiatu dute Udalari eskatzeko herrigunean berdegune gehiago eta kontuan hartzeko herritarren iritzia zuhaitzak moztea moduko erabakiak hartu aurretik. (Ikus herritar taldeak idatzitako gutuna iritzien atalean).




Herritarrek joan den asteko elkarretaratzean.

Txarreanean ere, ondo

TESTUA UBANE MADERA

ARGAZKIAK: UBANE MADERA

Soraluze, Mugituzleko kideak "pozik" daude Urban Trail eta Andaina lasterketek emandakoarekin; batez ere, kontuan hartuta "eguraldi eskasa egin zuela". Hala ere, badaude Jokin Martinezek azpimarratu dituen "zehetasun" esanguratsuak: "Nahiz eta dena kontra izan, jendea esperientzia bizitzeko gogotsu etorri zen, eguraldirik txarrenarekin ere. Eta eguraldia ikusita ere, egunean bertan 20 lagun gehiagok eman zuen izena". Bestalde, estreinatutako Andainaren ibilbidea "patentatzeko modukoa" dela uste du Martinezek, "jendearen iritziak jasota, edozein zapatu goizetan egiteko modukoa". Gainera, Martinezek azpimarratu du euren esku zegoen guztia "herrian erosi" zutela, tokiko kontsumoa bultzatuz, eta lortu dutela %98-99ko birziklapen-tasa.





Irudi engainariak

Zortzi zati hauetatik hiru irudi nagusitik hartuta daude eta gainerako bostak engainariak dira, hau da, antz handia izan arren, ez datoz bat irudi nagusiarekin. Identifika itzazu.



Esaera zaharrak

Esaldi hauek bat etor litezke marrazkiak adierazten duenarekin, baina denak ez dira esaera zaharrak. Zehazki esanda, erdiak asmatuak dira. Bereiziko al dituzu?


- 1 Martxoko eguzkia, txarren txarrena
- 2 Apirilean ezin jakin noiz izango den ateri
- 3 Maitasuna eta gorrotoa bezala, eguzkia eta euria, elkarnen kontrario
- 4 Apirila euritsu, urtea kakatsu
- 5 Eguzkia eta euri, martxoko eguraldi
- 6 Euriak ez daki eguzkia ahaltzuogoa dela

SUDOKUA



Txinako kondaina baten arabera, Lu Mei neskatok asmatu zuen aterkia, oso aspaldi. Erronka bota omen zion anaiari, euriak babesteko tresna onena zeinek asmatuko, eta berak irabazi.

Osa ezazu sudokua, ATERKI hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (A, T, E, R, K eta I). Gogoratu, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.



Marratzu zure mozerro-jantzirik gustukoena.

GUTUNAK

Herriko danborradari, gero arte

DANBORRADA KO BATZORDEA

Honen bidez, Danborradako Batzordeak eskerrak eman nahi dizkizue urtez urte ekintza hori posible egin izan duzuen guztiei, parte hartuz edota antolaketan zein baliabideak emanaz.

Eskertza ohar hau sinatzen dugunok, urte askoan zehar jardun dugu ekintzaren antolaketan, 2000. urtea baino lehenagotik zenbait kasutan. Gustura eta gogo handiz egin dugu, herriko danborradak merezi duela uste dugulako.

Baina egoerak aldatzen doaz, eta gutako batzuk ezin diogu lan horretan jarraitzeko konpromisoari eutsi, eta batzuk jarraitzeko prest dauden arren, ez dute lortu beharrezkoa den gutxieneko antolatzaile kopurua osatzea.

Antolaketa batzordetik dei egin dugu pertsona berriek izena eman dezaten: oharrak egunkarian, bilera deialdiak...; baina inork ez du bere burua aurkeztu doazenak ordezkatzeko.

Beraz, etsipena sorrarazten digun arren, aurten ez da herriko danborrada ekintza agertuko jaietako programan.

Mila esker guztioi.

Zuhaitzak moztu dituztela-eta

HERRITAR TALDE BAT

Dakizuen bezala, maiatzaren 6an kiroldegiko pasealekuan zeuden zuhaitzak kendu zituzten. Zergatik kendu dituzte?

Maiatzaren 20an alkatearekin elkartu ginen. Berak esandakoaren arabera, leku horrek birgaitzea edo onera ekartzea behar zuen. Orain,

gune berde txiki hori hesitu eta lore ekologikoz bete dute.

Arrazoiak arrazoi, argi dago pasealekuan ez dugula zuhaitzik. Zuhaitz horiek ez dutela euren funtzioetako bat beteko: itzala ematea. Eta uda garaian paseatzen duen jendeak deskantsuan eseri eta zuhaitz horien itzalaren falta igarriko du.

Asfalto ugari dugu herrian, eta berdegune gutxi. Asfalto herria nahi dugu? Guk ez.

Egiten gabiltzan sinadura bilketarekin adierazi nahi dugu erabaki horrekiko desadostasuna eta haserrea.

Eta horretaz gainera, eskatu nahi dugu halako erabakiak hartu baino lehen, Soraluzeko Udalak kontuan har ditzala egon daitezkeen iritzi desberdinak.

Aldez aurretik, mila esker babesa eman diguzuen herritar guztioi.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

HAUSNARKETA

Zer eskatuko zenioke alkateari?

Datozen lau urteotarako alkatea ekainaren 15ean izendatuko dute, inbestidura saioan; hari zer eskatuko lioketen galdetu diegu lau herritarri.



MONTI
CARRETERO

"Herrian garbiketa egitea eskatuko nioke, oro har, oso zikin dago. Ibai bazterrek ere oso zikin ikusten dira, batez ere, ur igoerak eta jaitsierak dauden tokietan. Eta herri sarreran dauden eraikin zaharrek zerbait egin dezala, baita bukatu bako etxeekin ere".



NAIARA
MARTIN

"Inplika dadila gehiago egoitzako gatazkan, bai hitzarmenari dagokionean eta baita barruan izan ditzakegun gatazketan ere. Gure egoitza irabazi asmo bako elkarte da eta alkateak badu zeresana, nahi badu, batzordeko kide delako. Eta herria zaintzeko ere eskatuko nioke".

ZIR(R)IKA

P.G. **MAGNOLIAK**

PUNTUA

**XABIER IÑURRIETA
LABAYEN****“Modernitatearen”
ajeak**

Haurrak baino txakur gehiago ei dago Bilbon. Horixe diño El Correok orain egun batzuk argitaratutako berri baten. Hori irakurrita "haurrak eta txakurrak" sarrera jarri dut interneten eta sorpresa!! Asturiasen horixe gertatzen dala diño El Independiente hango egunkariak.

Ez dakit datu zehatzik darabilten edo "hiritar mitoa" dan baina argi dagoena da gure herrian ere lehenago baino askoz txakur gehiago ikusten ditugula. Ziur naiz euren jabeentzako ezin maitagarriago izango direla eta "berba egitea besterik ez zaiela falta". Baina txakurrak txakur dira eta guztiok bezala, euren beharrak dituzte. Txakur-kakaren inguruko eztabaida aspaldikoa da eta gaur egun nahiko arrunta da jabeak horiek jasotzen ikustea. Zailagoa ikusten dut pixaren arazoa konpontzea. Txakurrek berezko portaera dute euren esparruan arrastoa uztea eta besteena usaintzen badute gainean egiten dute eurena. Horrelaxe dauzkagu kale askotako paretak, arrastoz beteta.

Ez dakit nola konpondu daitekeen, jabeen gauza izango den edo Udaletxeak zerbait egin dezakeen. Baina konpondu ezean bazter nazkagarri izugaratuta ibiliko gara.

**MARKEL
FERNANDEZ**

"Eskatuko nioke asteburuetan herriko tabernek luzaroago zabaltzeko aukera izatea. Bestela, jendea Eibarrera joaten da; jendeak gero eta ohitura handiagoa hartuko du kanpora joateko, azkenean herrian ez da inor ibiliko eta hutsik geratuko da".

**JOSE ANTONIO
AMUTXASTEGI**

"Nik gauza bat eskatuko nioke alkate berriari: konpon ditzala herriaren kanpoko aldean dauden (periferiako) errepideak, eta ez bakarrik herri erdigunean daudenak; besteek ere beharra badute. Bestela, konforme nago herrian dagoenarekin".

Tradizioa eta berritasuna dantzan

Aurten ere, dantzari lotuta datoz Euskal Jaiak, baina badira nobedadeak: Erromerixa Egunean, dantza-taldeko gaztetxoek eta helduek elkarrekin egingo dute dantza eta, gainera, gonbidatu bereziak etorriko dira: *Hariz Hari* dantza-ikuskizuna eta Gathubi musika-taldea.

Testua: **Egoitz Unamuno.**
Argazkiak: **Fernan Oregi eta E. Unamuno.**

Dantza filmak eman die hasiera aurtengo Euskal Jaiei, eta datozen bi asteburuetan ere, dantzaren bueltako ekitaldiekin jarraituko dute. Ekitaldi horietan lehena, domeka honetan egingo da: 49. Haurren Euskal Jaia. Aurreko edizioetan bezala, egun horretan dantzari txikiak izango dira protagonista: herrikoak eta Debagoieneko herrietatik etorritakoak, guztira 170 bat dantzari. Ekainaren 8an, berriz, Erromerixa Eguna egingo da Ezozin, hainbat nobedaderekin: eguerdian, Baxenafarroatik etorritako dantzariak *Hariz Hari* dantza-ikuskizuna eskainiko dute, eta, arratsaldean, Nafarroako Gathubi musika-taldeak girotuko du erromeria. Gainera, Urrats dantza-taldeko dantzari guztiek, helduek eta gaztetxoek, elkarrekin esango diote agur ikasturteari.

Berritasunak: *Hariz Hari* eta Gathubi

Aurten, Euskal Jai Batzordeak apustu berezia egin du Erromerixa Eguna indartzeko: “Nahi dugu Ezozikoa izatea egun bat herriko dantzazaleak batuko dituen, adin eta maila guztietakoak, elkarrekin dantza eginez egun eder bat pasatzeko. Nahi dugu izatea herritar guztientzako jaia”.

Horretarako, egun osoko egitaraua prestatu dute. Hasteko, eguerdian, 12:30ak aldera, Urrats dantza-taldeko helduek eta gaztetxoek hainbat dantza eskainiko dituzte, eta, ostean, 13:30ean, Baxenafarroako Zarena Zarelako dantza-taldeak *Hariz Hari*



Ezoziko plazan Larrain dantza dantzatzen.

ikusbizuna eskainiko du. 50 minutuko dantza-saioa izango da, euskal dantzak eta dantza garaikidea uztartzen dituenena. Taldea, hamar dantzarik eta bost musikarik osatzen dute, guztiak dira emakumezkoak. Euretako bat da Laura Perez musikari amikuztarra, Ilde Perez soraluzetarraren alaba (Elkarrizketa hurrengo orrialdean).

Arratsaldeko 15:00ak aldera, bazkaria egingo dute ermitaren inguruan, Eibarko Bizimina elkartekoek prestatuko duten menuarekin: entsalada, paella eta postrea (edariak barne). Bazkaritarako txartelak dagoeneko salgai daude Iratxo goxodendan, 12 eurotan helduendakoak, eta 8 eurotan 14 urtetik beherakoendakoak. Hori bai, antolakuntzak jakinarazi du, beti bezala, nahi duenak aukera izango duela bazkaritarako lekua bakarrik erreserbatzeko (debalde) eta bazkaria etxetik eroandako janariarekin egiteko.

Iluntzeko erromeria 18:00etan hasiko da eta Gathubi taldeak girotuko du hiru-lau orduz. Talde nafarra 10 musikari gaztek osatzen dute eta folk estiloko doinuak jotzen dituzte, “askotarikoak, dantzarako”: baltsak, rantxerak, arin-rinak, jauziak, jotak, zortzikoak, kalejirak... Tartean, Larrain dantza ere egingo dute herriko dultzaineroen eskutik. Beraz, dantza egin nahi duenak aukera zabala izango du Ezozin.

Euria bada, karpa

Antolatzaileek ohartarazi dutenez, euria eginez gero, ekitaldi guztiak aparkalekuan jarriko den karpa handian egingo dira.



Urrats dantza-taldeko dantzariak.

EMAKUMEAK HASI DIRA ORAIN ARTE GIZONEZKOENAK ZIREN DANTZAK EGITEN, BAINA EZ ALDERANTZIZ

DANTZA TALDEAK UDALARI ESKATU BERRI DIO ENTSAIATZEKO LOKAL EGOKI BAT

Emakumezko perfila

Gaur egun, Urrats dantza-taldea berrogeitamabosten bat dantzarik osatzen dute, 12 helduk eta 43 gaztetxok. Amaia Argarate arduradunaren esanetan, “orain dela lau urte izan zen krisi moduko bat umeen parte hartzeari dagokionez, baina azken urteotan buelta eman zaio, eta, orain 43 neska-mutiko inguru dabilta dantzan. Helduen taldean 12 lagun gaude eta hor bai behar dugu kide gehiago”. Adinari dagokionez, gazteena da dantza-taldearen hutsune nagusienetako bat, momentuan ez baitago dantzaririk 14-45 adin tartean.

Generoari dagokionez, dantza-taldeak emakume perfila hartu du, partaideen %95a emakumezkoak baitira (lau mutiko daude gaztetxoen multzoan). Genma eta Itziar Urteagak bi urte daroez gaztetxoei dantza irakasten eta euren ustetan “gizonezko nagusien erreferenteak behar dira” mutikoak erakartzeko. Izan ere, helduen taldean denak dira emakumeak. “Gainera, gauza bitxi bat ari da gertatzen: emakumeak egiten hasi dira lehen gizonek baino egiten zituzten dantzak, baina alderantziz, ez”.

Beste kontu aipagarri bat da azken urteotan dantzetan gertatu den ugaritasuna, hainbat iturritatik edanda: plaza eta erromeriako dantzak egiteko joera handiagoa dago, Euskal Herriko beste lurralde batzuetako dantzak ikasten dira eta atzerrikoak ere bai. Arduradun denak bat datoz ondoko baieztapenarekin: dantza abanikoa handitzeak haize freskoa ekarri du.

Lokal propio baten beharra

Dantza-taldeak badu eskakizun nagusi bat Udalarendako: lokal propioa. Gaur egun, ikastetxeko gimnasioa erabiltzen dute entsaiatzeko leku nagusi moduan, baina gero eta arazo gehiago dituzte ikastetxeko jardunarekin konpatibilizatzeko. Esaterako, helduen taldeak Gaztetxean egiten du entsaioetako bat. Hori dela eta, Udalari eskatu berri diote entsaiatzeko lokal egoki bat.

"16 kideko neska-taldea gira Hariz Hari"

LAURA PEREZ MUSIKARIA

Laura Perez baxenafartarra Zarena Zarela dantza-taldeko kidea da eta musikari moduan parte hartzen du *Hariz Hari* ikuskizunean.

Soinujole ikasketak egin ditu Baionako kontserbatorioan eta, gaur egun, trikitixa irakaslea da Xiberoan. Bera Ilde Perez soraluzetarraren alaba da.

Zuk aspalditik duzu harremana Soraluzerekin.

Soraluzerekin dudan harremana familiaratik heldu zait, aita hor bizi izan baita eta bere familiaren parte bat han bizi baita (aita, anaia, arreba eta baita kusi batzuk ere). Beraz, ttipidanik joaiten ginen noiztenka asteburu batzu haien bisitatzera, eta urte guziz eguberri eta urtatseko bestak haiekin pasatzera. Hortik kanpo nere anaiekin ez dugu beste erlaziorik sortu Soraluzeko jendearekin, beraz, herri horrekin dudan harremana orai arte familiarra baizik ez dela izan errango nuke. Baina hori aldatzen ari dela dirudi, gaur egun, beste aukera batzuek erakartzen baitnaute Soraluzerat...

Ekainean bi aldiz etorriko zara Soraluzera. Lehenik, ekainaren 1ean, Trikitixa Egunean, trikitilari gazteekin.

Trikitixa egunera etortzeko aukera piztu da nere aitari esker, Amikuzeko Trik'Amik elkarteko zuzendari gisa garaian antolatu baitzituen ginen trikitilari gazteentzako



ateraldiak trikitixa egunera (eta urte batez Soraluzerat etorri ginen). Orduan aitzak aipaturik, amikuzeko musika-eskolako Serge Labescau zuzendariarekin antolatu dugu ateraldia aurten. Hiru musika-eskolako haurrak etorriko dira, Xiberoko musika-eskolakoak, Donapalekoak eta Ezpeletakoak. Espero dut haurrek egun hortaz untsa goza dezaten, eta hegoaldeko trikitilarietaz inspira diten! Horrelako ateraldi eta trukaketak izigarri onuragarriak dira musikarako interesa eta

motibazioa haunditzen baitituzte!

Ekainaren 8an, berriz, Erromerixa Egunera etorriko zara Hariz Hari dantza ikuskizunarekin.

Bai. *Hariz Hari*, gure gusto eta nahietarik sortu den dantza/musika ikusgarria da. Bakotzak proposatu ditugu maite genituen kantu eta musika zatiak, eta horrela, *Hariz Hari* muntatu ditugu, piezak eta dantzak denen artean, ordu bateko ikusgarria lortu arte. 16 kideko neska-taldea gira: hamar dantzari, bost musikari eta Pascale Lascano koregrafoa. Ikusgarri hori berezia da musika/dantzak eta kantuak osatzen baititu erdi-erdi, estilo eta kultura desberdinetako musika eta kantuak nahasiz. Ahantzi gabe musika gehiengoak musikariaren sorkuntzak direla. Nik trikitixa, pianoa eta perkusioa jotzen ditut.



Hariz Hariz ikuskizuneko musikari eta dantzariak .

Atutxa eta Vicente aizkolarien lehia

Ekainaren 9an, gaur eguneko bi aizkolaririk onenak etorriko dira Ezozira: Aitzol Atutxa eta Iker Vicente.

Ezoziko Jaien egunean, maila goreneko kirol-erakustaldia izango da aurten. Iragarri dutenez, ekainaren 9an, eguerdiko 13:00ak aldera, gaur egunean eliteko konpetizioan dabilzan bi aizkolaririk onenak lehiatuko dira Ezoiko plazan: Aitzol Atutxa (Dima, 1988) eta Iker Vicente (Otsagabia, 1997).

Atutxak palmares ikusgarria du: hamabi aldiz irabazi du Bizkaiko txapela eta bost aldiz Euskadikoa. Vicenteren curriculum ere ez da



Iker Vicente eta Aitzol Atutxa.

nolanahikoa: Nafarroako txapeldun izan da azken lau ediziotan eta azken bi urteetan Euskadiko txapeldunorde.

Ezohiko erakustaldia

Arkaitz Arana herri kirol adituak azaldu duenez, Ezoziko erakustaldia "ezohikoa" izango da. "Hasteko, abiadura froga egiteko egurrak ekarriko dituzte, 40 ontzakoak, neurtzeko zeinek ebakitzen duen bizkorrago. Ondoren, tenteko egurrekin jardungo dute. Baina erakustaldiaren parterik bereziena kanako egurrena izango da. 2 metro t'erdiko zirkunferentzia duten egurrak dira eta horixe izango da probarik potoloena eta bereziena, ze normalean erakustaldietan ez dira horren egur handiak erabiltzen eta hori plazan ikustea polita da".

Ibartzabal Euskal Selektzioak deitu du

12 neskaz osatutako Euskal Selektzioko jokalarietako bat izango da Onintza Ibartzabal hockey jokalaria soraluzetarra

Onintza Ibartzabal (Lazkao, 2005) Euskal Selektzioaren aurrelarietako bat izango da, ekainaren 25etik 27ra Galizan jokatu den Estatuko selektzioen arteko txapelketan.

Guztira, 12 neskaz osatutako taldeak ordezkatu du Euskadi txapelketa horretan, eta horietako bat izango da hockey jokalaria soraluzetarra.

Lehen aldia izango du Euskal Selektzioarekin Ibartzabalek. "Entrenamentuetara aurkeztu



Onintza Ibartzabal.

nintzen lehen aldiz.

Entrenamenduetan hiru maila daude. Eta mailen artetik aurre-aukeratu egiten dituzte jokalaria batzuk, eta gero horien artetik aukeratu dituzte 12", esplikatu du. 60-70 bat jokalariren arteko aukeraketa egiten dute modu horretan, hain justu. Ibartzabalen kasuan, aurkeztu ziren 20 neskatatik 12 aukeratu dituzte, eta Bergaran taldekide dituen beste hiru lagunekin joango da lehiaketara soraluzetarra. Taldeak entrenatu du elkarrekin dagoeneko, eta Ibartzabalek "ondo" ikusten du kontua.

Begarako jokalaria

Begarako Burdinola taldearekin jokatzen du hockeyan Onintza Ibartzabalek, 11 urte zituenetik.

Hortz klinika

27 urteko esperientzia

Javier Alonso Keko Guñe
Mak. Idazkariak Olinarioak
K.Z. 48.005.504 K.Z. 48.001.549

Enbald 1 - Tel.: 943 75 30 13



KLB6

Kalebarren 6
943 67 31 28
Mak. Idazkariak

!SOLID
VERO MODA



Txoko

Eguneko menua,
plateak, konbinatuak,
hamburgerak,
ogitariekak,
radiak,
pizzaak,
gosiak...
Enkarguak egiten dira
Tel. 943 75 17 88



IZXGUIRRE
Igeltzeritza

Eraikin berriak • Kalitatezko emaitza
Erreforma • Era gutxiatoko igeltzeritza

50 urteko esperientzia • 610 638 913 • 649 867 299




Jasotzen plazarrak, bertatik bertara

Batzoki

eguneko menua
astelohenezko
karta eta menuak

ogitariekak eta
hamburgerak
enkargu bereziak

Berria eta
lagun arriak
beharrik

Erretorikak 943 75 20 16




ELIZPE
HORTZ KLINIKA

Zure genak hortz klinika,
puntu puntako teknologietan lan
egiten dugu. Cad-Cam sistema
bertakoa erabiltzen dugu.

Elizburu, 3 behea
SORALUZE
Tel: 943 75 25 67
e-mail: elizpe.ih@gmail.com

Ordutegia:
Astelohenezko ostiralera
10:00 - 13:00 eta 16:00 - 20:00




TXURRUKA
JATETXEA

Sukalde
tradizionala
Eguneko menua
Asteburuetako
menu berezia
Karta
www.txurruka.com
Tel.: 943 75 15 81



SUMA
basolanak

Mug. 635 71 34 08

baso garbiketarak eta entresakak
zortzi laguneko taldea zure zerbitzura



TXURITXU GOZOTEGIA

Astelohenezko ostiralera:
08:30-13:00 eta 16:30-20:30

Larunegia: 08:30-13:30
Igandak: 08:30-14:30

Gosariak, oja,
prema, pastidak,
bostak...
Etxera eramateko
zerbitzua

Tel. 943 75 24 43



MENDIZABAL
okindegia

Ogia - Prentsa - Gosariak

Astelohenezko
ostiralera:
08:00 - 13:00
17:00 - 20:00

Larunetarak eta
igandek
08:30 - 13:15

Kalebarren 10
Tel.: 943 75 13 99



Kontulan

aholkularitza
ABOKATUAK

Errenta, zituerpenak, Administraziozko lanak
Tratamendu burokratikoa Lan-arloko aholkularitza
Enpresen kontabilitate/Idazkariak Kontabilitateak

Santa Ana 13 - 1. eta. 20190 Sorluze
Tel. 943 75 17 82 / Fax 943 75 01 82



AURREZTU ENERGIA

Berota ura eguzki izpiekin
edo oliarekin

fontaneria
San Andres
Iturgintza

639 179 696 • sanandresiturgintza@gmail.com



REIKI

Maria Etxabe
699 699 795



Belarrak Lorandea eta betandea

Loreak, etikagai ekologiko
eta osasungarriak,
kosmetika eta etxeko
garbitzeko produktu
ekologikoak

Etxera eramateko zerbitzua
Enkarguak egiten dira
Tel.: 943 75 30 11



Euskalzaletasunaren alde:





Herri kirol saioa Ezoziko plazan.

Ezoziko Jaietan meza, kirola eta bertsoak

Ekainaren 9an, zapatuan, egingo dira Ezoziko Jaiak. Eguerdira arteko egitaraua bakarrik izango da eta arratsaldean ez da zezenik izango.

Ondorengoa da auzotarrek aurtengo jaietarako prestatu duten egitaraua:

- 12:30ean Meza.
- 13:00etan Bertsolarien saioa: Eneko Beretxinaga eta Jokin Bergara.

- Eta ostean, aizkol-jokoa: Aitzol Atutxa vs Iker Vicente.
- 14:30ean Bazkaria Armendin bertsolari eta trikitilariekin. Goiz osoan zehar, Larreategi anaiek alaituko dute giroa trikitixarekin.

EH Sukarrak Arranoan joko du ekainaren 7an

Ekainaren 7an, arratsaldeko 20:00etan, EH Sukarra taldeak kontzertua eskainiko du Arranoan. Eibarko heavy metal talde mitikoak 30 urte bete ditu aurten eta, formatu txiki eta handiko kontzertuak eskaintzen jarraitzen dute han eta hemen. Taldeak bederatzi disko ditu argitaratuak. Azkena, 2015ean argitaratu zuen: *Azken gezia*.



Azken gezia diskaren azala.

Irakurle sarituak: Irati eta Patxi

Irati Oregi eta Patxi Osa irakuleei egokitu zaizkie Irakurri Gozatu eta Oparituko 30 euroko erosketa txeeak. Maiatzaren 31n amaituko da liburutegian fitxak betetzeko aukera eta zabalduko da erosketa-txeeak erabiliz -%35eko deskontuarekin- herriko liburu dendetan -Iratzon eta Estankoa- liburuak erosteko epea, ekainaren 17ra arte. Herritarrak euskaraz irakurtzera "tentatzea" da ekimenaren helburua.



Aspanogiren aldeko jaiak

Ekainaren 15ean, Aspanogiren aldeko jaiak egingo da Etxaburueta kalean. Goizeko 11:00etan umeentzako jaiak izango dira, 12:00etan patata tortila lehiaketa, 19:00etan bokata erraldoia eta musika egun guztian zehar. Ekimena, Bolia, Arrano, Intxixu eta Mendizabal Okindegiak antolatu dute Aspanogirekin batera.

Bertso-saio beganoa

BERTSOLARIEK TXISPADUN SAIOA OSATU ZUTEN LEIBARREN ESANETARA

TESTUA ETA ARGAZKIA EGOITZ UNAMUNO.

Gipuzkoako Bertso Txapelketarako beroketa saio moduan antolatu zuten hilabete hasieran bertso-saio beganoa Gaztetxean. Bertsoan: Eneko Beretxinaga plazentziatarra, Mainer Arregi oñatiarra, Ane Labaka lasartearra eta Iñigo Eizagirre itziartarra. Gai-jartzaile: Ibon Leibar bergararra.

Publikoan berrogeita hamarren bat afaltiar, gazteak gehienak. Ondo afaldu ostean, bi ordu pasatxoko bertso saio ederra osatu zuten guztien artean.

Enekoren agurra

Haierako agurrean ondorengo bertsoa bota zuten Beretxinagak:

Gabon denori ta agur bana hori da hemen ordena, afariari egin nahi diot gaur bigarren aipamena seitana eta barazki hoiek txokolatea eta dena gaur tripetatik kantatutzea izango dugu onena.

Gainerakoak aurkezten

Bertsolariak banan aurkez zitzala eskatu zion Leibarrek Beretxinagari eta hala aurkeztu zuten Ane Labaka:

Bere ondoan hor dago Ane Lasartetik datorrena, bere buruan badauka nahiko logika ta teorema, monologoa lagun hartuta



Leibar, Beretxinaga, Arregi, Labaka eta Eizagirre.

pasa Euskal Herri dena. Esan behar dut gu laurotatik bera da radikalena.

Turismoaz

Herrira turismoa erakartzeko plana prestatu behar duten alkatearen eta turismo teknikariaren paperean jarri zituen Leibarrek Eneko eta Mainer eta bertsoaldi polita osatu zuten.

*Mainer
Duela hilabete
heldu herri hontara,
Ta Patria grabatzen
hasi ez dira, ba!
Turismoa ekarri
nahi duzu bertara,
Barkaidazu, Eneko,
inposiblea da.*

*Eneko
Soldatapean baina
ez dago isila,*



*debatea sortu du
eta iskanbila.
gure herriak badu
brillo eta brilla,
baten bat egongo da
kerizpean bila.*

*Mainer
Datuak emateai
nahi nioke ekin,
nahikoa harrituta
Soraluzerekin,
irudi txarra ematen
duzue behinipin
herri erdian dagon
Gaztetxe horrekin.*

*Eneko
Begiak dir-dir piztu
zaizkit, ba, kolpetik.
Nik ere ez diet-
ta estimu handirik.
Traban dago, erdian,
ta ederki dakit,
Baina eroriko da
nik bota aurretik.*

Isis Batista

LA HABANATIK SORALUZERA



Isis Batista Hernandez (La Habana, 1965) Soraluze bizi da 2016ko martxoaz geroztik, senarra duen Gerardo Lorenzo Gallardorekin (La Habana, 1960). Txurrukakoak aspaldiko lagunak dituzte, "familiakoak bezala dira"; haien bitartez izan zuen gure herriaren berri.

Abokatua zara, ezta?

Bai, zuzenbidean lizentziaduna naiz Habanako Unibertsitatetik.

Abokatu modura lan egiten zenuen?

Ingurumen gaiekin espezializatutako abokatu nintzen, Ingurumen Ministerioan. Segurtasunaren Erregulazio eta Kontrol batzordeko buru nintzen. Ingurumen legeak eta araudiak, kalitatearekin lotutakoak... ziren nire ardurapekoak.

Hemen ezin duzu horretan jardun?

Ikasketak konbalidatu beharko nituzke, eta zuzenbidea desberdina da toki bakoitzean, eta ikasketa guztiak berriro

egitea moduan izango litzateke. Hori bai, ikusi nuenean udaletxean ingurumen teknikaria behar zutela...

horrelako zerbait bai gustatuko litzaidake. Ingurumena da nire mundua. Beste aukera batzuk ere ari naiz aztertzen ikasketei dagokienez. Ze prebentzio arloan konferentziak ematen ibilitakoa naiz eta irakaslea ere izan naiz arlo horretan, eta hemen inguruan, adibidez, industria handia dago. Hala ere, hemen aukera izan dut pertsona nagusiekin lan egiteko, eta hori ere gustuko dut.

Zela integratu zara Soraluzean?

Oso ondo, gustura nago. Ohitura desberdinak ditugu, adibidez, Kuban tabernak dantzarekin lotzen dira, hemen ez, baina ohitzen joaten zara. Bestalde, ikusten dut hemen herritarrak oso errotuta daudela, asko baloratzen dira tradizioak, eta balore handia ematen diot horri.

1. Isis Batista Kalebarrenen.

3. Isis Batista eta Gerardo Lorenzo

4. Isis Batista Kuba ordezkatzen, Hagan (Holanda), 2011n.

Joskintza bihurtu du ogibide



Domekan, ekainaren 2an, eskulangileen azokan parte hartuko duen artisauetako bat da Cristina Albusua (Soraluze, 1973). Salgai izango ditu berak jostiako lanak, *Orratz Cristina Albusua* markarekin. Izan ere, azken urtean joskintza du ogibide.

"Duela hamar urte hasi nintzen pitxiak egiten, Bergarako Candyn lan egiten nuenean. Hango lankideek, baina, gero eta lan gehiago eskatzen zizkidaten. Ondorioz, gauza gehiago egiten hasi nintzen: diademak, brotxeak... Duela urtebete, amari josteko makina apurru eta makina bat erosi beharrean bi erosi eta amak josten erakutsi zidanetik, horixe dut ogibide: joskina naiz, joskintzatik bizi naiz eta oso pozik nago horrekin. Gehienetan, azokarik azoka ibiltzen naiz, eta enkargu mordoa ditut. Orain urtebete autonomo egin nintzen

kooperatiba batekin eta orain nire kontu hasiko naiz, diputazioak emandako artisau txartelarekin".

Merkatu berri bila

Gipuzkoako eta Bizkaiko azoketan ibiltzen da eta zera dio: "Hilero 7-8 bat azoka izaten ditut, gehienak asteburuetan, baina baita aste barruan ere". Eta beti ari da merkatu berri bila. Adibidez, Bergarako eta Aretxabaletako ile-apaindegi banatan baditu produktuak eta duen eskaintza handitu egin nahi du makina brodatzailea baliatuta, bere kabuz hasten denean: jaietako kamisetak, langileendako jantziak....

Motxilak, baberoak, poltsak, ogi-poltsak... josten ditu eta enkarguak pertsonalizatzeko aukera ere ematen du. Eskaera zuzenez aparte, Cristina Albusuak Internet ere erabiltzen du inspirazio iturri.

1. Cristina Albusua Oiarzango azokan.
2. Makina brodatzailearekin.
3. Berak egindako produktuekin.

Harremanetarako

625 70 99 51

Facebook Orratz

tirin2810@hotmail.com.

Joxean Leibar

PLAZENTZIATAR ASKOK ESTIMU HANDITAN DUTEN TABERNARIA

TESTUA ETA ARGAZKIAK: EGOITZ UNAMUNO

Joxean Leibarrek (Abadiño, 1952) bi urte eta erdi egin ditu Intxixu Pub-eko tabernari moduan eta herritar askoren sinpatia irabazi du denbora horretan. Askorendako, entzuten eta konbertsazioa ematen dakien tabernaria da.

Tabernako lana laga berritan, naturaltasun osoz erantzun Pil-pileanen galderei eta kontu asko aipatu ditu. Ohartarazpen bat ere egin du behin eta berriz: “honek danok dire nire gauzek eta ez inorendako gomendixuek”.

Soraluzera etorrera

“Abadiñoko taberna itxi nebanien, jubilatzeke laga nauen, baina gauzak gaizki urten eusten eta geratu jatan urte batzuk kotizatzeke. Ni garai baten paseoan etortzen nintzoan sarri Plaentxira eta ikusi najuan taberna alkilatzen zala. Berba egin najoan jabeagaz eta besterik barik. Ez neukan erreferentziarik bape baina ikusi nauen Arranoa zeguala aldamenean eta horrek segurantzia emon eustan. ‘Arranora datorren jentiairen lautik bat sartzen badok, nahikue!’”.

Taberna berbetarako leku

“Nire formak die naturalak. Nire mundu klasie da berba egin pla-pla eta ez



Joxean Leibar.

dotoretasune. Edadekuek hori asko apreziatzen dabe. Jentea ez doa tabernara edateagatik bakarrik, doa berbetaldi bat egitera, eta niri berba egitea asko gustetan jate, asko. Niri entzutie be gustaten jata, nahiz eta ados ez egon... Ikusten badozu ondo argumentaten dabela. Esate heban batek: ‘Mi única certeza es la duda’. Nik ez dot egiten berba etikagaitik eh! Nik egiten dot kostea barik. Ni nau hamabi ordu lanien jentia gaz berbetan eta niri

**"GURE ABADIÑOKO
TABERNIEK,
MILIKUENAK, DEKOZ
BERREHUN ETA
HIRUROGEI URTE"**

egiten jat bi ordu katiegitea baino laburrago”.

Tabernari familiakoa

“Ni bizi guztixen hola ohittu naizenez... Jaio tabernan eta bizi tabernan... Aurretik berrogei urte ibilite karreran, hemengue samur erutekue izan da. Gure taberniek, Abadiñokuek, berrehun eta hirurogei urte dekoz. Nire hirugarren abizena Milikua da eta tabernien izena da Milikuena. Hainbeste urte egin eta gero, genetikamente zeozer pasatuko da nik uste, ezta? Taberniekin batera geunken basarrix, perratokixe, serrie, arotzerixie, dendie...”.

Norbera izatea

“Norbera izatie parte oso inportantie da niretzat. Jaiki

goizien, juen bañura eta ikusi: “hau neu naz” eta urten eta segitzen badozu zeu izeten egun guztixen, asko da. Ipintzen dozun momentuen gauza bat zu ez zarena horrek gerora ekartzen dau beste gauza bat zeu ez zarena. Gure aittak esaten haben: “numero bat gehixago kaltzetan dabena, listua bada, ha defendiduko da, baina numero bi gehixao kaltzetan dabezena, ha jausiko da. Egon seguru!”.

Tabernari ona izateko...

“Gero eta gatxaue da tabernari ona izatea, harremanaren kalitateari dagokionagaitik. Gizarte bat gero eta aberatsagoa izan, orduan eta egoistagoak dira pertsonak. Ni, ni, ni! Eta horrek ekartzen dau bezeroagaz tratua moztea. Tratu hori galdu da asko, eta galduko da gehiago. Lehen kamareroak egoten ziren berbetan trunkil eta oin dana prixa da”.

Esaera onak gogoan

Niri gustetan jate esaera onak gogoan hartzie. Nik, esaterako, topo egiten dot edadeko bategaz hemen eta esaten doste: “Konforme!”. Eta niri holako erantzunak geratu egiten jataz. Hemen esaera asko entzun dodaz. Hemengo baten semeari emon eutsen diploma Eibarren eta esan eutsen: “Zorionak!” eta berak kontestau eutsen: “Horrek inportantzia pixkat jauk



Joxean, Inazio Elgeta laguna agurtzen.

hementxe. Plaentxian hori normala dok!”. Eta esan najuan, kontxo, Plaentxi, hemen badaok zeozer.

Tabernari lagatakoan zer?

“Nik gauza asko dekodaz atzeratuta, egiteko dekodazenak tabernan lanien ibili nazelako. Atzeratuta dekodazen horrek nahi dodaz eguneratu. Esaterako, oindio mobilik be ez dekot eta nahi dot mobila erabiltzen ikasi eta beste gauza asko. Beti izan naiz

positibo eta uste dot dekodazela gauza asko egiteko, egin dodazenak baino gehiago egiteko, baina, klaro, margena estutzen doie.

Plazentzia

“Nik uste dot taberna guztiak hain junto egotera, egiten dabela edozein herri aberastu. Hemen, praktikamente, herri guztia da bat eta horrek egiten dau giroa sortu. Nik ez dot uste egongo danik Euskal Herrixan beste herri bat hemengo anbientia daukanik.

“Niretzako Plaentxi bihurtu da bizitzako zati inportante bat eta aurrera be intentziñue dekot sarri etorteko. Nik laguntzat dekodaz asko eta lagunegana etorriko naz, kontu batzuk konteu ta beste batzuk entzun eta...”.

"NIRETZAKO PLAENTXI BIHURTU DA BIZITZAKO ZATI INPORTANTE BAT ETA AURRERA BE SARRI ETORRIKO NAZ"

ZERBITZUAK

ZORION AGURRAK



Maddi Oregi
Ekainaren 7an, 9 urte. Zorionak polittori! Asko maitte zaittugu! Familiaren partez.



Odile Basauri
Maiatzak 21ean, urtetxo bat! Zorionak poxpolin!! Asko-asko maite zaitugu!! Etxeko guztien partez.



Iker Laskurain
Zorionak! Ekainaren 6an, 6 urte. Unai eta Leireren partez.




Maier
Zorionak! Ondo pasa zure eguna. Muxu handi bat sorgintxo! Nayala, Julene eta osaben partez.

JAIOBERRIAK



Izar Fernández Hernández
Maiatzaren 14an jaio zen.



Angelica Pia
Ekainaren 9an. Zorionak ama! Muxu handi bat! Etxekoen partez!



Carla Amutxastegi
Ekainak 4an, 6 urte. Zorionak eta muxu haundi bat! Danon partez!



Kattalin
Ekainaren 8an. Zorionak! Muxu haundi bat! Etxekoen partez.

HILDAKO ETA JAIOTAKOAK

Hildakoak

Antonio Martin Martin
Ramiro Cortes Revuelta

Jaiotakoak

Fatima Zahra Hmamcha
Bidane Lazpita Ormaetxea
Izar Fernández Hernández
Idara Perez Del Campo
Beñat Larrañaga Gallastegi

ESKELAK

ESKER ONA

Rosario Aldazabal Larrañaga



2019ko maiatzaren 7an zendu zen.

Bere sinismen eta izaera eskuzabalaz hainbeste erakutsi eta eman diguna. Langilea eta umoretsua. Inguruko pertsona askoren *Amama Rosario* izan zara. Ezingo zaitugu inoiz ahaztu, beti gordeko dugu gurekin zure irrifarra eta maitasuna.

Familiak eskerrak eman nahi dizkizue modu batera edo bestera gure ondoan izan zareten guztioi.

II. URTEURRENA

Jon Cerrejon Epelde



2017ko ekainaren 11n hil zen.

Jontxu, Zerre, Zipi, Jon... Zure izaera bereziak bete gintuen guztia, ezingo du inoiz hustu zure hutsuneak. Beti gurekin.

Zure kuadrillia.

ERREFERENDUMAREN ALDEKO HERRI EKIMENAREN AURKEZPENA

Ekainaren 20an, eguena, 19:00etan

Plaza berrian

Eguraldi txarra bada udaletxeko batzar aretoan izango da



GURE
ESKU

BATZAR ZABALA

Ekainak 4, martitzena

18:30ean

- Datozen hilabeteetan preso eta iheslarien giza-eskubideen alde jorratu nahi den bide berriaren berri emango da
- Elkarrekin datozen hilabeteetan egingo diren ekimenak adostuko ditugu



SARE



SORALUZEKO EUSKAL



JAIAXAK



HAURREN EUSKAL JAIAXA

EKAINAK 2, DOMEKA

- 10:30 Ongi etorria Frontoian
- 11:30 Kalejira herrian zehar
- 13:00 Alardea Plaza Zaharrean
Ostean, dantzariak banatuko dira ebxeetara
- 17:00 Alardea Plaza Zaharrean
Ostean, buruhandiak



ERROMERIXA EGUNA

EKAINAK 8, ZAPATUA

- 10:30 Hamaiketakoa Plaza Barrixan
- 12:00 Kalejira Ezozirantz, boistulariekin
- 12:30 Dantza saioa Urratsekoekin
- 13:30 HARIZ HARI dantza ikuskizuna (Baxenafarroatik)
- 14:45 Bazkaria elizpean
Txartelak salgai daude irabxo goxodendan
- 18:00 Dantzaldia GATHUBI taldearekin
Tartean, Larraín dantza



'DANTZA' FILMA
MAIATZAK 30, EGUENA
21:00etan, antzokian

Antolatzaileak



Sorraluzeko Euzkoak



Bizi dantzan!
Dantzan egittiak arima pisten dabelako

Laguntzaileak

